

# SAN PEDROAK 09

## Eskoriatzako jaiak

Egubakoitza / 2009ko ekainaren 26a / GOIENKARIaren GEHIGARRIA



San Pedro bezperan eta Umeen Egunean danbor hotsak izango dira nagusi herriko kaleetan zehar..

GOIENKARIA

### DANBORRADA

# 300 danbor-jotzaile, prest

JASONE ZABALA

**G**utxi falta da nagusi eta haurrak danborrak astintzen hasteko. Aurtentere parte-hartzea handia izango da, eta hainbat batailoi eta danbor-jotzaile arituko dira; bai San Pedro bezperan (nagusiak, 22:30ean) eta baita Umeen Egunean ere (txikiak, 18:30ean) herriko kaleetan zehar.

Egunak daramatzate motorrak berotzen danborradan parte hartu behar duten nagusiek eta haurrek.

Domekan, San Pedro bezperan, nagusien txanda izango da. Beste urte batez Amuska emakumeen elkartekoek 1985. urtetik (24 urte) daramate danborrada antolatzen, eta danborradarako aterako duten gurdia eurek apainduko dute.

dutengai *Amuska 1985-2009 Eta orain, zer?* izan da; emakume elkartekoek 1985. urtetik (24 urte) daramate danborrada antolatzen, eta danborradarako aterako duten gurdia eurek apainduko dute.

Danborradaren aurretik egiten den afaria aurtentere ere egongo da, frontoian, baina nork berea ordaindu beharko du, jaietako

egitarauan egin diren diru murrizketak direla-eta. Ondoren, betiko ibilbidea egindo dute, 22:30ean hasita, eta ibilbide guztian zehar plazara iritsi arte zazpi musika pieza joko dituzte.

#### UMEENA MARTITZENEAN

Umeen danborrada, berriz, Umeen Egunean, ekainaren 30ean izango da (18:30ean). Guztira 180

neska-mutikok hartuko dute parte, zortzi batailoi, eta egingo duten ibilbidea hau izango da: kiroldegian hasi; ondoren, Sorautzetik zehar Dorletara joango dira; oeste-an, Huhezitik pasako dira; amiera herriko plazan izango da. Txikien aurtengo gaia Anbotoko Mari izango da eta guztira sei pieza joko dituzte, Eskoriatzako Musika Bandak lagunduta.



## Zubia Pateek jai zoriontsuak opa dizkizuite guztioi!

Aingeru Guarda pasealekua 17 20540 Eskoriatza

Tel.: 943 71 51 31 / Faxa: 943 71 52 79

[www.pateszubia.com](http://www.pateszubia.com)



**EGITARAUA**

# JAIETAKO EGITARAUA

**Zapatua, 27**

**11:00** Haurren VI. Kontzejupe pilota txapelketa.  
**13:00** Eskoriatzako gimnasia erritmikoko taldearen ERAKUSTALDIA Santa Mariñe plazan.  
**19:00** Oilasko eta sagardo DASTAKETA plazan.  
**22:00** Kontzertua: Laket, Narrats, Carrocerias Betoño eta DJ Erras.

**Domeka, 28**

**12:00** Poxpolo eta Mokolo pailazoak Gorosarri plazan.  
**13:00** Eskoriatzako areto futbol taldeari harrera.  
**13:30** Festa kanpaiak eta txupinazoa plazan.  
**16:00** VI. Kontzejupe nagusien PILOTA txapelketa.  
**18:00** Errekortadore eskola ibiltaria.  
**19:30** Parrokiako abesbatzarekin salbea elizan.  
**20:00** Alaiki taldearekin DANTZALDIA plazan.  
**22:30** Nagusien danborrada.  
**00:00** Dantzaldia plazan Alaiki taldearekin.



TXISTULARIEN KALEJIRA.

**Astelehena, 29**

**09:00** Txistulariekin kalejira.  
**11:00** Umeendako margo lehiaketa herriko plazan.  
**11:40** Elizbira.  
**11:55** Udal ordezkariek San Pedro elizara.  
**12:00** MEZA nagusia San Pedro elizan.  
**12:00** Felix Likinianori buruzko erakusketa.  
**13:15** Musika Eskolako Bandaren kontzertua plazan.  
**17:00-19:00** Balanzbike zirkuitua eta hankapaluak.  
**18:30** PILOTA partiduak: Quina eta Agiriano, Oiartzabal eta Loyola; eta Mendizabal eta Irureta, Gorka eta Merino II.a.  
**18:30** Zanguango antzerki taldeak *Tokata y fuga en fu Renol*. Herriko plazan.  
**23:00** Mascleta argitsua Santa Mariñe plazan.  
**23:15** Riki Lopez abeslari eta komikoaren emanaldia Gorosarri plazan.  
**00:00** LISKER taldearekin dantzaldia plazan.

**Martitzena, 30**

**09:00** Herriko txistulari taldearekin kalejira.  
**12:00** Yarleku taldearen *Apo madarikatua* umeendako ekitaldia Gorosarri plazan.  
**12:00** Herriko hildakoen aldeko meza.  
**13:00** Habanerak eta boleroak Eibarko Los Camperos hirukotearekin herriko plazan.  
**16:30** XVIII. Mus Txapelketa Gernika plazan.  
**18:30** HAURREN DANBORRADA.  
**00:00** JOSELU ANAIAK taldearen dantzaldia plazan.

**Eguaztena, 1**

**12:30** Talogileak eta SAGARDO kupelak plazan.  
**13:00** Herri kirol erakustaldia plazan.  
**14:30** HERRI BAZKARIA Santa Mariñe plazan.  
**18:30** San Pedrotako III. KANTU TXAPELKETA.  
**19:30** PRESO eta ERREFUXIATUEN aldeko kalejira.  
**19:30** Zaparrada batukada taldea herriko plazan.  
**22:00** Dantzaldia ZE ESATEK taldearekin.  
**00:00** Bandera jaitsiera.



HERRI BAZKARIA EGUAZTENEAN EGINGO DUTE.

## OTZETA JATETXEA

Aranburuzabala 9  
ESKORIATZA  
Tel.: 943 71 31 67

**Eguneko menua****Gazte menua****Karta****Bazkariak eramateko****San Pedro jai zoriontsuak!**

**Eraikuntzak  
Obra Publikoak  
Kontrata Orokorrak**  
**Ondo pasa San Pedro jaiak!**

ANTZERKIA

# Hiru presoren hiru istorio ezberdin kontatuko dituzte

'Tocata y uga en fu renol' antzerkiak hiru presoren gorabeherak kontatuko dizkigu

JASONE ZABALA

San Pedro egunean (18:30ean) Zanguango antzerki taldeak presondegi bihurtuko du herriko plaza. Hiru presoren istorioak kontatuko dituzte musika eta txotxongiloekin.

**G**aztela eta Leonen duela 16 urte jaiotako taldea da Zanguango. Datorren astelehenean Eskoriatzako herriko plazan *Tocata y fuga en fu renol* izeneko antzezlana eskainiko digute.

San Dimasko presondegian dauden hiru presoren istorioa kontatzen da antzezelan horretan. Hiru presoak, kartzelako piano irakasleak halaxe eska tuta, kontzertu bat emateko kartzelatik irtengo dira. Gazi-gozoa den tragikomedia da. Zuzenean eskainiko dituzten jazz, gospel, rap eta ska doinu eta abestiekin eta baita txotxongiloen bitartez, presoetako

bakoitzak kartzelaratuia izateko arrazoia azalduko ditu. Muturreraino era mandako pertsonaiak dira, eta baita aldi berean maitatuak ere.

**TALDE ESANGURATSUA**  
Gaztela eta Leonen oso talde ezaguna da Zanguango; eta Valladoliden egindako kaleko arte eta antzerki jaialdian ikusleen saria irabazi zuten. Miguel Muñoz (Bekereke taldeko kidea ohia) da sortu zenetik taldeko zuzendaria. Taldearen lehen lana *Macanas argentinas* deiturikoa izan zen. Eskoriatzan eskainiko dutena 13. antzezlana izango da.

**Valladoliden egindako kaleko arte eta antzerki jaialdian ikusleen saria irabazi zuten**



Zanguango antzerki taldekoak *Tocata y fuga en fu renol* antzezelaneko une batean.

ZANGUANGO



Ondo ibili  
San Pedrotan!



Aranburuzabala 42, behea ESKORIATZA Tel.: 943 71 51 54

## ERREKORTADOREEN ESKOLA IBILTARIA

# Zezentxoekin errekortea egiten ikastea da helburua

Entzierroa, errekortea, jolasak eta zalditxo txikiak ere egongo dira ikuskizunean

JASONE ZABALA

Neska-mutikoen artean zezentxoenganako beldurra kendu eta errespetuz haiekin jolastea da errekortadoreen eskola ibiltariaren helburua. Ekainaren 28an (18:00etan) izango da.

**A**urten lehen aldiz, eta berritasun modura, errekortadoreen eskola ibiltaria egingo dute jaietan. Inguruko herrieta dagoeneko nahiko errrotuta dagoen ikuskizuna da eta aurten Eskoriatzako jaietan egingo dute.

Euskal Herriko Errekortadore Taldea arduratu do San Pedro bezperako ikuskizunaz. Bertako arduradun Iñigo Almortzarekin hitz egin dugu: "Umeendako errekortadore ibiltaria egingo dugu. Umeei erakutsiko diegu zezentxoekin disfrutatzen, beldurrik ez izaten eta animaliak errespetatzen", esan digu hark.



Errekortadoreen eskola poliki-poliki gure artean leku izaten ari den ikuskizuna da.

GOIENKARIA

**"Umeei erakutsiko diegu  
zentxoekin disfrutatzen,  
beldurrik ez izaten"**

**Entzierroa egingo dute  
gezurrezko zezentxoekin, eta  
baita hainbat jolas ere**

## ERROTUTAKO JAIA

Debagoienean errotzen hasi den ikuskizuna dela adierazi digu Almortzak: "Bergarako jaietan aurten egin dugu, baita Arrasateko San Juan jaietan ere".

Ordu eta erdi iraungo du ikuskizunak: gezurrezko zezentxoekin egindako entzierro batekin hasiko da ikuskizuna estankotik Santa Mariñe Plazaraino; ondoren, plazan bertan gezurrezko zezentxoekin errekortadore eskolakoek erakutsiko diente gazteei nola egin behar diren errekortea; eta horren ostean, benetako zezentxoekin orduan, hainbat jolas egingo dituzte (sako lasterketak, oskol jokoa eta beste hainbat) eta amaitzeko zaldi txikitxoak ere egongo dira neska-mutikoendako. "Umeendako egokitutako ikuskizuna izango da; txikienen artean errekorteen zaletasuna zabaltzea da gure asmoa", azaldu du Iñigo Almortzak.


Udan zehar eta urrira arte, behintzat, herriz herri lanez gainezka ibiliko direla adierazi digu.



*Josek eta Natik San Pedro jai zoriontsuak opa dizkizuete!*

  
**Esko Sport**  
Zure konfidantzako denda

Intxartxueta 5 Eskoriatza Tel.: 943 71 52 96



★★★ HOTELA  
JATETXEA

**AZKOAGA**  
ENE A

Gaztaineria, 4 • 20540 ESKORIATZA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 71 45 66 • Faxa: 943 71 45 69



# FERIXA NAGUSIA 09

## Elgetako jaiak

Egubakoitza / 2009ko ekainaren 26a / GOIENKARIaren GEHIGARRIA

### ■ HERRI EGUNA

# Jai herrikoiak indartu nahian

NEREA MENOR

**E**guenean hasiko dira jaiak Elgetan. Ekintzaz betetako egitaraua izango dute aurren ere, eta berritasun asko: kabareta, bits jaia... Kaleak gainezka egongo dira abere, artisau, lore eta barazkiekin urtero Ferixa Nagusian. Herri Eguna zapatuan ospatuko da, herri bazkari eta guzti.

Jaten hasiko dute zapatua Elgetan. 08:00etan, ederto gosaltzeko, txokolate-jana egongo da gaztetxeen eta koadrilek hamaketakoa egingo dute gero, tripa betetzen jarraitzeko.

Hainbeste jan eta edan ondoren, indarrak hartuta, asto lasterketara abiatuko dira elgetarrak. Aurten, IX. saria ospatuko dute herrian.

Kalejiraren ondoren hasiera emango diote herri bazkariari. Iaz bezala, aurtengo menua paeña erraldoiak eta saiheski erre-

ek osatuko dute. Bazkaldu ondoren erretiratuen elkartekoek kafea banatuko dute. "Jai batzordetik eskerrak eman gura dizkiegu herritarrei, bai Herri Egunean, baita beste egunetan ere jaiak aurrera eramateko hartzen duten tarteagatik", diote Udale-tik.

#### KONTZERTU ASKO

Zapatuan, gauerdi, gaztetxe ondoko lautadan Señor No, Hell Beer Boys eta Doubling Boys taldeek joko dute. Egubakoitzean ere izango dira kontzertuak, gaztetxe alboan: Trapatoni Circus Band, Skakeitak eta Skasti taldeek joko dute, hain zuzen ere.

#### ZAPATUAN, BASERRITAR

Iazko erantzun ona ikusirik, aurten ere zapatuan baserritar janzteko dei egin du Udalak. "Herritarrek ondo-ondo pasa dezatela eta egitarauaz aparte jaiak norberak egiten dituela ere esan gura diegu" adierazi digu Oxel Erostarbe alkateak.



Asto lasterketa zapatuan, uztailaren 4an, egingo dute.

GOIENKARIA

**LANDETXEA - CASA RURAL  
EGUZKITZA**



Eibarreko errepidea z/g  
Tel. eta faxa: 943 78 90 84 Poltsikokoa: 679 41 66 97  
e-posta: casaeuguzkitza@hotmail.com



Jai zoriontsuak elgetar guztoio!



ETA ORAIN ZERBITZU BERRIKIN:  
**ZELULAK  
BIRSORTZEKO  
KAPSULA  
ETA MASAJEAK**

**EGITARAUA**

# JAIETAKO EGITARAUA

## Eguena, 2

**17:00** Umeentzako jokoak.  
**19:30** MOZORRO JAITSIERA Salbadortik Ustekabe txarangarekin. Plazara iritsitakoan alkate txikiari agintea eman ondoren brindisa egingo da eta herriko jaei hasiera emango zaiet. Ondoren, buruhandiak.  
**23:00** ERROMERIA Kupela taldearekin.  
**00:00** Larrain-dantza eta ondoren erromeria.

## Egubakoitza, 3

**11:00** Umeendako PUZGARRIAK Salbador kalean.  
**11:15** SALDA Intxorta elkartearren aurrean.  
**11:45** KRABELINAK jartzea erretiratuei.  
**12:00** MEZA NAGUSIA, jazko jaietatik hil diren erretiratuen alde.  
**13:00** Herri kirolak. HARRI-JASOTZAILE SAIOA Goenatxo eta Goikoetxerekin.



MUSIKA EZ DA FALTAKO ELGETAKO KALEETAN.

**14:00** Erretiratuendako BAZKARIA Espaloian. Bazkalostean Peli Arantzabal soinu-jotzailea. Ordu berean, umeentzako bazkaria ere bai.  
**16:00** Umeendako puzgarriak.  
**18:30** Buruhandiak.  
**19:00** Zezenak.  
**20:00** Lau t'erdiko buruz buruko PILOTA TXAPELKETAKO FINALAK eta trikibertsio poteoa.  
**20:15** Bits festa plazan.  
**22:30** ERROMERIA: Zurrust taldearekin.  
**00:00** Gaztetxe ondoko lautadan TRAPATONI CIRCUS BAND, SKAKETAK eta SKASTI taldeak. Zezensuzkoa plazan. Ondoren, erromeriak jarraitu egingo du.

## Zapatua, 4

**08:00** TXOKOLATE-JANA gaztetxean.  
**11:30** Koadrilen hamaiketakoa: Ozkarbi elkartean.  
**11:45** Buruhandien etorrera Salbadortik Ustekabe txarangak lagunduta.

**12:30** ASTO KARRERIA, Elgetako IX. saria.  
**14:30** HERRI BAZKARIA: paella erraldoia eta saihesti errea. Ondoren kantuak eta dantzak Ustekaberekinekin.  
**19:00** Zezenak.  
**22:30** ERROMERIA Imuntzo eta Belokirekin.  
**23:30** Bolo txapelketa.  
**00:00** Zezensuzkoa.  
**00:00** Kontzertuak, gaztetxe ondoko lautadan: SEÑOR NO, HELL BEER BOYS eta DOUBLING BOYS.

## Domeka, 5

**09:00** FERIXA NAGUSIA zabalduko da: ganadu erakusketa, eskulangintza, herriko abereak...  
**12:00** Elgetako trikitilariek alaituko dituzte kaleak goizean zehar.  
**12:30** Idi probak.  
**18:00** Umeentzako playback lehiaketa.  
**19:30** KABARETA Femme Fatale konpainiarekin.  
**21:00** Txitxi-burruntzia.



PAELLA ERRALDOIA GERTATUKO DUTE UZTAILAREN 4AN.

# ELGETA AUTOAK

JULIAN SANZ FERNANDEZ

ZORIONAK  
ELGETAR GUZTIOI!



Berraondokoa z/g ELGETA • Tel.: 943 76 82 02 Faxa: 943 76 82 98



# JUAN BERISTAIN NEKAZAL TRESNAK



Salmenta  
eta  
konponketa

Oidor Berriozabalbeitia, 14 • 48230 Elorrio (Bizkaia) • Tel.-Faxa: 94 623 18 03



pasquali

HONDA  
STIHL®  
SAME

BCS  
CARON  
VIKING®

KABARETA

# Kabaretaren dotoretasunak amaiera emango die jaiei

Margo, takoi altu eta jantzi koloretsuekin apainduta jazz eta swing doinuak entzungo dira datorren astean Elgetan

NEREA MENOR

Aurtengo berritasun nagusia izango da Femme Fatale konpainiaren kabaret ikuskizuna. Kaleetan zehar takoiak eta glamourra izango dira nagusi.

Domekan, Ferixa Nagusixaren ondoaren, Femme Fatale konpainiaren eskutik kabareta etorriko da Elgetara: *Cabarédeambulante* izenburua duen ikuskizuna eskainiko dute herrian zehar.

Femme Fatale Galiziako datorren konpainia da eta Nelson Quinteiro zuzendariaren esanetara Chuecan ere ibili izan dira, Gay Harrotasunaren Eguneko ospakizun eta antzezen. Leioan ere izan ziren, Umore Azokan, eta uztalean Lekeitio izango dira.

MUSIKA ETA ANTZERKIA

St James Street Band taldeak jarriko du musika, aktoreek euren lana bete-



Femme Fatale taldearen *Cabarédeambulante* ikusteko aukera izango da domekan, uztailaren 5ean.

FEMME FATALE

tzen duten bitartean. Jazz musikaren doinuekin batera sei antzezle arituko dira dantzak: Maria Manero, Maria Polo, Yolanda Paz, Ines Alcalá, Vera Lopez eta Nelson

**Mimoa, kale animazia, swing dantza, zuzeneko musika eta improbisazioa uztartzen ditu Femme Fataleren ikuskizunak**

Quinteiro -zuzendaria-, "Kaleetan zehar ibili ohi gara dantzan. Inguruko aulkiak, bankuak, zebra-bideak eta inguratzen gaituzten gainerako baliabi-deak erabiltzen ditugu.

Kaleetan zehar

**Domeka**  
**19:30**

Lehenengo aldiz, kabaretak beteko ditu Elgetako kaleak Ferixa Nagusian.

Edozelan ere, ikuskizun bakoitzaz ezberdina da, egerrara eta dauzkagun baliabideetara egokitzen dugueta", dio Quinteiro, Femme Fatale taldeko zuzendariak.

MUSIKA ETA ANTZERKIA


Elgetan adin guztiak jendearentzako kabaret ikuskizuna eskainiko dute. Ikuasleekin interakzioa bilatzen dute antzelzana aberatsago egiteko, eta haien aldetik oso erantzun ona jasotzen dutela jakinari dugu.

"Mimoa, kale animazia, swing dantza, zuzeneko musika eta improbisazioa uztartzen dituen ikuskizuna da", diosku Quinteirok.

JAIEN AMAIERA

Kabaretaren doinuen ostean, txitxi-burruntziarekin agurtuko dituzte jaiak elgetarrek, 21:00etan. Ekintzaz betetako lau egunen ostean jaietako agur esanda, pena igarriko dute herritarrek, baina lotara joateko beharra izango dute orduetako.

ILE APAINDEGIA  
ILE APAINDEGIA  
Andra Mari plaza 2  
Tel.: 943 76 81 97 ELGETA



**Marijok**  
**jai zoriontsuak**  
**opa dizkizue!**

**IÑAKI**  
- - - - -  
*Jatetxeak*

**Zorionak**  
**elgetar guztioi!**

**IDI PROBAK**

# Idien erakustaldia eta idi proba egingo dira azokan

Ganadu erakusketa, makineria eta burdindegia azokaz gain, askotariko produktuak erosteko aukera Ferixa Nagusian

NEREA MENOR

**Ganaduari urteroko garrantzia emanet, aurtengo Ferixa Nagusian 25 idi pare inguruz osatutako erakusketa egingo da azokan, eta baita idi proba saio bat ere eguerdi aldera.**

**U**rteroko ohiturari jarraituz, Ferixa Nagusia ospatu-ko dute elgetarrek datorren domekan, uztailaren 5ean. 09:00etanik eguerdia arte egongo da zabalik.

Elgetako trikitilariek kaleak alaitzen dituzten bitartean, ganadua, tresneria eta jakiak ikusteko aukera egongo da.

**EGUERDIAN PROBAK**

Goiz osoan zehar idi era-kusketa ikusi ahal izango da, 22-25 idi pare inguru egongo dira azokan. Eguerdian hasiko da idi gazteen proba. 12:30ean, Elgeta, Zumarraga eta Bizkaiko herrietatik ekarrita-

ko idiak harriarekin ibili-ko dira, ordubeteko saioan. "Idi hauak ez dira inoiz plazan ibili", dio azoka antolatzen ibili den Leire Basaurik.

Antolatzaleek hiru sari banatuko dituzte aurten ere: 360 euro irabazlearentzako; 300 euro bigarrenarentzat; eta 240 euro hirugarren postua lortzen duenarentzat.

**KRISIA FERIXAN**

Krisiak azokan ere eraginik baduen galdetu diogu Basauriri: "Ez dakigu zenbat jende gerturatuko den, baina iaz baino idi pare gehiago ditugu eta saltoki kopuru antzerakoa da".

**Elgetako, Zumarragako eta Bizkaiko idi pare gazteak lehiatuko dira probetan**



Idiek izango dute protagonismoa domekan ospatuko den azokan.

GOIENKARIA

Domekan

**Barazki eta ganadu azoka**

Azoka 09:00etan zabalduko dute, ohiko lekuak; idi probak, 12:00etan.

**Barazkiak, abereak eta artisauak**


Zalantzak gabe idien erakustaldia da azokako ekintza ikusgarrienetakoak. Hala ere, urtero legez, beste hamaika gauza ikusi eta dastatzeko aukera izango da Ferixa Nagusian.

Bertaraino hurbiltzen direnek loreak, barazkiak, gaztak, frutak, txakolina, eztia edota landareen erakusketa eta salmenta ikusiko dute, besteak beste. 45-55 saltoki inguru egongo direla adierazi digute antolatzaleek. Bertaratzen den ganaduarengatik oso ezaguna da Elgetako Ferixa Nagusia. Aurten, behiak, txahalak, astoak eta idiak egongo dira.

*Elena Elkorok zorionik beroenak opa dizkizue elgetar guztioi eta bertaratzen zaretenoi.*

*Ondo pasau!*

**ONDO PASAU JAIXETAN!**



**CIE Recyde**

**CIE RECYDE, S.A.U.**

Pagatza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa  
Tel. zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10  
[www.cieautomotive.com](http://www.cieautomotive.com)

